

Lagun horiek:

Atzo soldata-erregimena ez aplikatzeko klausulari buruzko negoziazioak bukatutzat eman genuen akordiorik gabe.

Batzordearen jarrerak bi zutabe nagusiak zituen:

- 2009 eta 2010 urteak ez dira negoziatzen. Izatekotan, 2011ko klausula baino ez dugu "onartzen"
- Eskainitako guztia langile guztiontzat onuragarria izan behar da, aplikatutako klausula langile guztioi eragiten digulako.

Eta idea horiei eutsita, eta baita "kobratzen ez dena ez da lan egiten" ideian ere, batzordeak hurrengo proposamena egin zion enpresari:

- 2009 eta 2010eko atzerapenen ordainketa osoa.
- 2011rako, %2ko soldata-igoera eta %1,6 jardunaldiaren murriztapena (hitzarmenaren %3,6ko igoera heldu arte); 27 ordu gutxiago gutxi gorabehera.
- 2012 ez dago barne akordio honetan.
- 2011 izan ezik, hurrengo urteei begira gutxieneko bermea ez konpensatzeko konpromisoa sinatu behar da.

Proposamen hau enpresak baztertu zuen; haiek luzatutako azkena hauxe izan da:

- 2009rako, KPI+%0,3ko igoera, eta 2010rako KPI+%0,2koa ( urteko dagokiona %0,5koa da) eta 2010eko falta zaiguna. Euskalsoft-en kasuan oraindik ez da ezer aurreratu.
- 2011rako, %1,5.
- 2011an, %1,1 jardunaldiaren murrizketa ( Apirilatik aurrera, ostiralerako jardunaldia 30 minutu murriztuz ), baina GFI-Norteko ordutegia egiten duten langileentzat besterik ez.
- Enpresak 2011an 2010ko etekin-portzentaia mantentzen badu, %1eko igoera.

Edota aldaketa txiki batekin:

- 2009 eta 2010ko ordainketa
- 2011rako %1eko igoera

Arestian aipatutako zutabeetan oinarrituta, eta GFI-Norteko bi sindikaturen txosten ekonomikoak ikusita ( batek GFI "likidezia gehiegi" duela, eta besteak "amortizazio gehiegi" egiten duela esaten dute, hurrenez hurren), enpresak atzerapenak eta soldatak ordaintzeko daukan tartea eta abagunea benetan handia da, eta ez litzateke likidezia-arazoa sortuko. Bai txosten hauek, bai enpresak emandako aurreikuspenak, eta baita bileretan jorratutako edukiak ere soldata-erregimena ez aplikatzeko klausulari buruzko akordio batera heltzera galarazten gaituzte, klausula horri eustea zentzurik ez duelako, eta askoz gutxiago planteatutako parametroetan.

Gaurtik aurrera, enpresaren esku dago bide legala jarraitzea dokumentazio guztia LHKra ( Lan Harremanterako Kontseilua) eramaten, bitartekotza-prozesua hasteko asmoz, edota prozesua bertan behera uztea hitzarmena betetzeko.

Hurrengo egunetan informazio gehiago emango dizuegu, txosten ekonomikoak helaraziko zaituztegu eta prozesu honen zalantzak argitzeko ere informazio-asanblada deituko dizuegu.